**Ikustezinak, azpikoak, esplotatuak, guztion artean gizarte alternatiba erreala:**

- **Zorraren ordainketari ez.** Banketxeek itzul ditzaztela herriari lapurtutako 41.000 milioi euroak.
- **Europar batasunari ez, eta** europako hegoaldeko herrien **eurotik berehalako irteeraren alde. HERRIEN ARTEKO ELKARTASUNA ETA LANKIDETZAREN ALDE, konpetitibidadeari ez.**
- **Lan duina eta oinarrizko errenta aski.**
- **Lan erreformak, Pentsioen erreforma, Osasungintza eta hazkuntzaren erreformak bertan behera gera daitezela, honakoak legez zihurtatuak izan daitezen:**
  - **Kontrato duinak eta lan-sari aski, lan-astearen murrizketa 30 hordutara denok lan egin ahal izan dezagun.**
  - **1200 euroko gutxieneko lan-sari eta pentsioak.**
  - **Dohako hezkuntza eta Osasungintzarako eskubide unibersala.**
  - **Pentsio Publiko aski gaur egungo eta biharko belaunaldientzako.**
  - Bizitzarako oinarrizkoak diren ondareak kudeatzen dituzten **enpresa guztien despribatizazioa: energia (ura, gasa eta elektrizitatea), garraio publikoak (trenbidea), gizarte zerbitzuak, kultura, hezkuntza eta osasungintza.**
  - **Etxea ondare enbargaezina.**
  - **Doako Justizia.**
  - **Beren gorputzarekin zer ikusirik duenari buruz, emakumeen erabakitzeko eskubidea.**
- **Korporazio enpresarial handien eta inbersio fondoen IRUZUR FISKALAREN kontrako jazarpena: gehien dutenek gehien ordain dezaten eta modu horretan aberastasuna birbanatua izan dadin ERREFORMA FISKALA.**
- **Mordaza legeari eta grebaren kontrako legeei EZ.**

**Duintasunak** mobilizatzera bultzatzen gaitu, aski frogatua dagoelako **borroka del abide bakarra** (Gamonal, Madrilgo osasungintza...).

Horrexegatik, **DUINTASUNAREN IBILALDIETARA joan eta parte hartuko dugu,** jarraitzen ditugun helburuak lortzeko **GREBA OROKORRA** lanabes baliagarritzat **aldarrikatzeko**.

**GORA LANGILERIAREN BORROKA!**

**ERREPRESIORIK EZ!**

**GREBA OROKORRA ORAIN!**

**Irtera 16:00 etan, Beata María Ana Plazatik Neptunoraino**

LANAREN KONFEDERAKUNDE NAGUSIA

www.cgt-lkn.org www.rojoynegro.info



# GREBA OROKORRERANTZ INDARRAK BATUZ

**Duintasuna** da borrokara eramaten gaituen arrazoia, **borroka bide bakarra dela** argi eta garbi frogatutzat ematen dugulako (Gamonal, Madrilgo Osasungintza...). Horrexegatik, **DUINTASUNAREN IBILALDIETARA joan eta parte hartuko dugu,** jarraitzen ditugun helburuak lortzeko **GREBA OROKORRA** lanabes baliagarritzat **aldarrikatzeko**.

**Ibilaldiak babesten ditugu:**

Boteredunak eta beren ordezkariak, botere politikoa, **legea armatzat hartuz eskubide eta askatasunekin akabatzeko erabiltzen ari direlako.**

Zuzentasun eta Eskubide estatuaren oinarriak: lana, pentsioak, zerbitzu publiko eta unibersalak: osasungintza, osasuna, hezkuntza, zainketa-dependentzia, langabezi prestazioak, kultura, etxebizitza, garraio publikoa, iritzi, greba eta manifestazio askatasuna, birrinduak izan ziren doikuntza fiskalen eta mozketen politikak ezartzen hasi ziren momentu berberan, "bankeroei, inbersio fondoei, enpresari haundiei eta gainontzeko saiei **erabat ilegitimoa den zor baten interes eta kapitala ordaintzeko diru aski izanen dutela zihurtatzeko".** Hori lortzeko, **ez zuten inolako arazorik izan konstituzioaren 135. artikulua aldatzeko** 2011ko abuztuan. Gehiengo sozialaren kontrako "estatu kolpe" bat izan zen hura.

Askatasunaren kontrako "estatu kolpe" hau gidatzen dituzten indar politiko eta ekonomikoak, 36koa eman zutenen baliokide eta oinordekoak dira. Politikariak ordezkatutako **burgesia** nazionalak eta atzerrikoak: NDF, Europar Komisioa, EBZ; **patronalak** finantza eta bankuen boterearen bitartez, eta **botere industriala:** Energiaren alorreko multinazionalak, eraikuntzarenak, telekomunikazioak...

Gizartearen erantzun sendoa egon ez denez, orain are autoritarioagoak diren lege proposamenak aurrera atera nahi dituzte: **Hiritargoaren Segurtasun Legea, grebaren aurkako legea, Abortoaren Legea,** guztiak, enpresariei, bankeroei eta beraientzat edozein erakundetan lan egiten duten ekonomista eta ejekutiboei, legediaren gainetik egoteko "Korso patentea" ematen die; **inpunitatea ia erabatekoa da.**

Beren krisia atzean uzteko **biztanlegoaren gehiengoaren gaineko eta baliabide naturalen esplotazio maila handitu nahi dute.** Horregatik inguru-giro inbersioak murriztu dituzte, eta ingurunearen babeserako lege eskaxa are eskaxagoa utzi, adibidez; kostaldearen eta parke nazionalen urbanizazioa sustatuz.

## Hauexek honako hauen arduradun dira:

- Estatu espainiarrean **gosetea pairatzearen arduradun.**
- **12,5 milioi lagunek pobrezian** bizitzearen arduradun (7040 euro baino gutxiago urtean).
- Milioika lagunek justizia sozialaren egarri izatearen arduradun:
  - **6 milioi lagunek langabezian daude**.
  - **Soldaten murrizketa masiboa**.
  - **Pentsioen izozte eta murrizketa** .
  - Oinarrizko lan **eskubideen desagerpena:** Lan-astea, maila, kontrato duinak.
  - Sindikalisten, gizarte ekintzaileen eta erakunde sozial eta sindikalen kontrako **errepresio selektiboa**.
  - **Ehun eta milaka lagun beren etxeetatik kanporatuak.**
  - **Osasun zerbitzua ukatzen zaien milioika persona**, osasun unibersalaren eskubidea urratuz.
  - Milaka eta miklaka gazte emigratzera behartuak eta hezkuntza unibersala eta dohakoa izateko eskubiderik gabe.
  - **Disidentzia eskubidea deuseztatua** izan da, greba, aldarrikapena...

**Beldurra, miseria eta gezurra airean somatzen dira.** Ez dago askatasuna eta milaka lagun kalera irtetzen direnean, grebara beren lanpostuen defentsan, soldata duin baten eske, bizitzarako oinarrizkoak diren eskubideen alde: etxebizitza, osasuna, hezkuntza, zainketak, kultura, garraio publiko eta sozialak, ingurugiro osasuntsua, haien aurpegian gaizkileak, lapurrak oihukatzeko adierazpen askatasunaren xerka... finean **eskubideak izateko eskubidearen defentsan,** orduan erantzuna "makilkadak" dira, "kalearen jabetza" norena den argi uzteko, garai bateko **ordena sozial autoritario eta diktatorial** horretara buelta.

Inork ez du "gose, berun eta askatasun gabeko" garaiak bizitzea merezi. Horregatik ez amorrua ez da aski, **milaka eta milaka lagunek legeei insumisioa egin behar genieke.** Ez dezagun izen berri batekin aurkezten diguten atzera bueltarik onartu. Ez diezaiogun beldurra, errepresio eta "kanposantuetako bakearen" historiari errepikatzen utzi. Persona eta herri bezala DUINTASUNA berreskuratzea pena merezi du.

**MOBILIZATZEN GARA:**

- Boteredunei lapurtzeaz aski dela esateko: **enpleguak, soldatak, pentsioak, osasuna, hezkuntza eta bizitza duintasunarentzat oinarrizkoak diren zerbitzu publikoak.**
- Beren jauregien aurrean, Kongresutik hasita, Monkloa eta Zarzuelatik pasatuz, bankeroen jauregietaraino (Santander, BBVA, La Caixa, Bankia…) **ASKI DA gure oinarrizko eskubideak xahutzeaz: askatasun sindikala, adierazpen askatasuna, greba askatasuna, justizia eskubidea.**
- **Etxebizitza eta lan kaleratzeei** irmoki aurre egiteko, **bizitza proiekturik gabe uzten baigaituzte.**
- **Txirotasuna, ezberdintasuna eta bidegabekeri soziala besterik ez generatzen duen sistema korrupto honi aurre egiteko.**
- Betirako kateatuta nahi gaituen **zorraren ordainketaren aurka azaltzeko**.
- Ulertzen dugulako ez dagoela krisi-maula honetatik irtetzerik, ez baldin ba zaio aldi berean **inguru-giroaren arazoei eta energiaren krisiari aurre** egiten.